

IKASLEEN TXOKOA 102. ZENBAKIA

Hernani BHI

BATXILERGOA

Kultura eta hezkuntza: euskaratik eta euskaraz.

Batxilergoko ikasleok aurten ere aukera izan dugu kultura eta hezkuntza Institutuan lantzeko.

Hernaniko liburutegiko eta kulturako arduradunekin elkarlanean ikusi eta bizi ahal izan ditugu, *Black is Beltza: Ainhoa* eta *Irati* pelikulak, *Hondamendia* antzerkia eta Joseba Sarrionandia idazlearekin topaketa.

Honetaz gain, *Satiro* eta *Hiru Kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzerkiak ikusi ditugu, eta Iñaki Perurenarekin ere topaketa bat izan


dugu. Oraindik ere Gotzon Barandiaran eta Rafa Ruedarekin dugu beste jardunaldi bat egiteke.

Beraz, aukera ederra izan dugu kultura eta hezkuntza uztartzeko euskaratik eta euskaraz.

Ondoren erakutsiko ditugun artikuluak, orain arte landutako gai horien lagin bat besterik ez dira. Ekitaldi horien aberatsena gutako bakoitzarengan utzitako arrastoa izan da.

Egileak:

*Aimar Garcia de Vicuña Hernandez, Enara Azurmendi Sarasola,
Añes Casado Etxeberria, Uxue Zugasti Rodriguez,
Maialen Azurmendi Mujika, Nahia Nabarro Oyarzabal,
Ainhoa Lopez Garcia eta Oihan Tomasena Tato.*



Antzerkiaren txokoa: Satiro

Gizonek ba al dute sexualitate erreprimaturik? Zer tabu aurkitzen ditugu gizonen sexualitatean? Ba al daukagu txikitako sexualitate askatasun berdina?

Ballet klase batzuetan hasi zen ideia arte bihurtu digu Xanti Agirrezabalak, mutilen sexualitatean eta hezkuntza sexualan sakontzen duen obra sortuz. Gradu amaierako lana izatetik hainbat urte aktiboan daramatzan antzerkia izatera igarotako obra dela aitortzen du egileak berak, eta baita urteetan zehar eboluzionatuz joan den antzerkia dela.

Satiroa hasieran aipatutakoaz gain, batzuk agian jakingoduzuen bezala, greziar mitologiako pertsonaia da, basoetako jeinua, erdi animalia eta erdi gizona (giza enbor eta aurpegi, aker zangoak, adarrak eta isatsa dituena). Hasierako definizioarekin, hala ere, ez dago urruti pertsonaia mitologikoa, izan ere, izaki hauen mitologiako berezitasunei esker ematen zaio hitzari esanahi hori. Satiroak Dionisoren jarraitzaileak ziren eta sexu-instintu gordineak irudikatzen zituzten.

Mutilen sexualitateari, sexualitate erreprimatu eta pornoaren menpekoari kritika egiten dio. Azkenean, ironikoa dirudi.

Hau da, gaur egungo gizartean gizona da sexualitatearen adierazlea, eta emakumea sexualitatea ezkutuan eraman behar duena; halere, gizonen sexualitatearen hainbat esparruk landuezinak dirudite eta tabu bihurtu dira. Hau, sexualitatearen heziketan eta arauketan pornoak agintzen duelako da, izan ere, honen bidez adierazten da zer dagoen onartua eta zer ez. Porno buruzagi handiek zuzentzen duten gauza da, eta iragarki, pelikula edo bestelako komunikabideetan zabaldutako mezu berdina zabaltzen dute. Gainera, heziketa sexual bakarra direla baliatzen dira eta doktrina hau gehiago jazartzen dute. Bertan, gizonen desira zehatz bat ikusten da, eta bertatik kanpo dagoenari; hots, heteronormatik urruntzen denari, desira desegokiak dituela aurpegiatzen zaio. Era berean, gizartearen hipokresia erakusten du, izan ere, hainbat desira eta eszena latz erakusterako unean, soilik batek lortzen du erreazio harritu bat ikuslearen. Hots, pornoaren industriak sexu harreman biolentoak,



baita biolazioak, normalizazioaren barne egotea lortu du, baina doktrina patriarkatuaren kanpo dauden bestelako desirak latzak izaten jarraitzen zaizkigu. Honengatik, Satiro antzerkiak mezu garrantzitsu bat bidaltzen saiatzen da ikusleari, "desira normala da, ekintzarekin kontuz!".

Horrez gain, fisiko edo irudiari ere kritika egiten dio, non gizonen estereotipo, batzuetan errepresiboa, kritikak dituen, non heteronormatik eta estereotipo jakin batzuetatik ateratzen dena gizarte talde batzueganetik baztertuta den, bere burua den bezalakoa espresatzeagatik.

Deserosotasunaren bidez egiten du hausnarketa Satiroak kaiola duela medio. Kaiolak nahiko esplizituki sexualitatearen errepresioa adierazten du. Antzerkian zehar kaiolarekin jolas egiten du etapa desberdinetan preso eta aske egonda. Satiroaren hausnarketak geroz eta gehiago sexu-askapenerantz egin, orduan eta askeago bilakatzen da, azkenean berriro ere kaiolan bukatzeko.

Zergatik amaitzen du kaiolan? Ez al du antzerkiak errepresioaren aurkako tesia aurkezten?

Gauzak ez dira hain sinpleak. Antzerkiak azken bihurtura batekin erakusten duen moduan, sexu-askapena ez da lortzeko hain gauza erraza eta pertsonarik irekienak ere ezkutuko aurreiritziak ditu. Amaieran ikusleari galdera planteatzen dio, fantasia oro onargarria da? Horrela puskatzen du antzerkiak zekarren sinpletasun moralak, gai ilun eta eztabaidagarrietara jotzeko. Izan ere, zertarako balio du arreta emateak gero iritzi ezberdinak pizten ez baditu?

Esan bezala, antzerkia Satiroa kaiola barruan dagoela hasi eta bukatzen da. Satiroa eta kaiola dira antzerkian parte hartzen duten gauza ia bakarrak, eta garrantzitsuenak. Izan ere hauei esker Satirok nolabaiteko kritika egiten dio gizarteak inposatutako normatibari eta maskulinitate fragilari. Honekin batera, Xantiren mugimendu eszeniko eta makilajeak ederki espresatzen du Satiroak sentitzen duena eta presentzia eszenikoa izugarria du. Gainera, ikuslearekin antzerki dinamikoa egiten saiatzen da, eta honen arreta erraz lortzen du.

Hala ere, aipatu behar da azalpen gabe ezinezkoa dela

guztiz ulertzea Satiroak nora joko duen deserosotasun horretan. Azalpen baten aurretik guztiz galduta geratzen zara momentu batean, zer gertatzen ari den jakin gabe. Hasieran aipatu dugun moduan, antzerki honetan urteetan zehar kontzeptuak gehitzen joan da, eta hori nabaria da antzerkian. Nahiz eta atal guztiek gai berdina jorratu, askaturik geratzen dira eta ez dute hari bat jarraitzen. Honen ondorioz, haren aurkezpena entzun gabe, bilatzen duen deserosotasun hortan geratzen zara, hausnarketarik egin gabe, eta sartzean baino pentsamendu erreprimenteagoarekin atera zaitezke. Behin haren azalpena entzunik, hausnartzen geratzen zara eta doktrina patriarkatu horren pentsamendu berarekin jokatzen ari zarela konturatzen zara. Honengatik, antzerki hau ondo ulertu edo balioesteko, ikusi, helburua zein den entzun eta hausnartu egin behar da, bertan bakoitzak haren esanahi desberdina aurkitzen diolako.

Laburbilduz, Satirok ematen duen ikasgai garrantzitsua eta behin eta berriro errepikatzen den hausnarketa da desira normala dela, baina handik ekintzara pausu garrantzitsu bat dagoela azpimarratzen du.

Oro har, inposatutako gizarte eta normatiba patriarkalari kritika egiten dio umoretik.

Egileak: Añes Casado Etxeberria, Nahia Nabarro Oyarzabal, Enara Azurmendi Sarasola eta Maialen Azurmendi Mujika.

Kepa Errasti

Irati: izena duen guztia bada; Kepa izena duena ere, bada

Kepa Errasti Gorroño aretxabale-tarra euskal aktorea eta gidoilaria da. Antzerkian, telebistan eta zineman aritzen da, gaztetatik izan baitu zaletasuna. Hori dela eta, Kazetaritza eta Antzerkia ikasi zuen. Horrek, Goenkale bezalako proiektuetan lan egitetik *Irati* filmaren parte izatera eraman du *Belasko* rolean. Horren arira, *Irati* filma ikusi ondoren Keparekin izandako elkarrizketaren berri emango dizuet.

Elkarrizketatzailea: Kontuan hartuta filma leizeetan, basoetan eta beste hainbat lekutan grabatu dela, nolako izan da filmatze prozesua?

Kepa Errasti: Niretzat oso ederra eta ausartuko nintzateke esate-

ra gainontzeko aktoreentzat ere halaxe izan dela. Beste kontu bat da zer esango lukeen lan talde teknikoak; azken finean, horrelako lokalizazioetan grabatzea eta egunetik egunera lekuz aldatzen ibiltzea sekulako lana da batez ere beraiantzat. Izugarria izan da egin dutena.

Aktorearentzat, aipatu dudan moduan, sekulako luxua. Egutero ez da *Irati* moduko baso batean, Abodi moduko mendilerro batean edo Huescako Loarre moduko gaztelu batean filmatzen, eta bertan egoteak jada lana errazten dizu nolabait esateko.

E.: Euskal mitologiak oso paper garrantzitsua betetzen du filmean, kontatzen den



bezainbeste zenekien filma hasi aurretik?

KE.: Egia esatea nahi baduzu, ez askorik. Ezagutzen nituen bertan aipatzen diren izen batzuk, baina ezer gutxi nekien haiei buruz. Oso polita izan da Paul Urkijok (zuzendaria) nola baliatu duen mitologia hori berak kontatu nahi zuen istorioa kontatzeko.

E.: Nola ikusi duzu filmak izan duen harrera? Espero zenuen halako arrakasta?

KE.: Oso pozik nago/gaude izan duen harrerarekin. Horrelako lana egin ondoren, eta batez ere Paulentzat, pozgarria da horrelako erantzuna izatea.

Estreinaldia guretzat Sitgesen

izan zenez, 2022ko urrian, denbora asko luzatu da eta konturatzen ginen jendea gogotsu zegoela pelikula ikusteko, baina gero sekula ez dakizu zehatz-mehatz zein izango den benetan publikoaren erantzuna. Gaur egun gainera iruditzen zait zinemara joateko ohitura pixka bat galdu dela, plataforma bidez eta etxean berehala izaten ditugulako pelikulak, baina kasu honetan jendea animatu da eta pozgarria da hori, bai zinemarentzat orokorrean, eta batez ere, euskaraz egiten den zinemarentzat. Ea horrelako lanek bultzada ematen duten proiektu gehiago egiteko.

E.: Euskal kultura sustatzeko eta argitara eramateko baliagarria izango dela uste duzu?

KE.: Euskal Kultura oso eremu zabala da, baina jakina bere aletxo jarriko duela honek ere. Eta izaten ari den arrakastarekin are gehiago. Mota honetako oso-oso proiektu gutxi egin dira Euskal Herrian, eta euskaraz are gutxiago, nik uste dut zentzu batean jada erreferente bilakatu dela.

Gainontzeko hizkuntzetan badi-tuzte abenturazko film handiak eta hemendik aurrera guk «Irati»rekin ere bai. Garrantzitsua da hizkuntza eta kultura batek bere erreferente propioak izatea.

E.: Filmeko euskalkiari dago-kionez, erraza egin zitzaizun zure hizkuntza egokitzea?

KE.: Niri asko gustatzen zait hizkuntza berak ematen dizkigun baliabideak gure lanean. Iruditzen zait oso erreminta garrantzitsua eta baliagarria dela pertsonaia bat edo beste sortzeko. Horregatik, asko gozatu dut horrekin eta erraza egin zait. Honetan Gorka Lazkanoren lana azpimarratu nahiko nuke, bera izan baita euskararen trataeraz arduratu dena.

Elkarrizketa laburra bezain interesgarria Kepa, eskerrik asko nire galderei erantzuteagatik, eta jarraitu orain arte bezain aktibo euskal antzerkigintzan eta zinemagintzan.

Egilea: Ainhoa Lopez Garcia

Zinemaren txokoa

Irati

Irati 2022an atera den film euskalduna da, Paul Urkijo Alijok idatzi eta zuzendua. J. Muñoz Otaegui eta Juan Luis Landaren “Iratiko zikloa” eleberri grafikoan libreki inspiratua dago. Eneko Sagardoy, Edurne Azkarate eta Itziar Ituño ditu protagonista.

VIII. mendean Karlomagnoaren armadak Pirinioak zeharkatuz egindako erasoaren aurrean, haraneko liderrak laguntza eskatzen dio antzinako jainkosa bati (Mari). Odolezko itun baten bidez, etsaia garaituko du trukean bere bizia emanaz, baina, lehenago, bere seme Enekori aginduko dio bere herria babes-teko eta gidatzeko aro berrian. Urte batzuk geroago, Enekok misio batekin ekingo dio promesa horri: Karlomagnoaren altxorraren ondoan modu paganoan lurperatutako aitaren gorpua berreskuratzea. Kristau fedea izan arren, Iratiren laguntza beharko du, inguruko pagano enigmatikoa. Bi gazteak baso bitxi eta hezigaitz batean sartuko dira, eta honek gordetzen dituen sekretu aipaezinekin topatuko dira.

Mitologia-erlijioa, sinesmenak-doktrina, paganoak-katolikoak..., elkar antonimoak diren kontzeptuak erlazionatzen ditu Iratik. Halere, nolako harremana izango dute?

1. IRITZIA

Pelikula honetan badaude goripatzekoak diren hainbat alderdi; hala ere, atentzioa gehien ematen duena euskararen erabilera da, izan ere, aktoreak Bizkaia eta Arabakoak izanik, nafarreraa baita pelikula osoan zehar erabiltzen den euskalkia. Hau gutxi izango balitz, antzinako euskara erabiltzen da, VIII. mendekoa zehazki. Honek eragin handia dauka pelikulan, ikus-entzulea luzemetrailak aurkezten digun garaiko giroan barreiatzen baitu.

Filmaren beste alde azpimarragarrienetako bat euskal mitologiarena eta honekiko tratua izango litzateke. Pelikulan adierazten den moduan, gaur egun euskal mitologiaren gaia iada ezezaguna da askorentzat, esanez gutxik gogoratzen dutela. Hala ere, film honek euskaldun askok gaztetan mitologiaren gainean izan ge-

nuen interesa berpizten digu. Horretaz gain, zehatza da mitologiako pertsonaiak aurkezterakoan: Mari, Ama Lurra irudikatuz, antropologo batzuek egiten duten tankeran; Sugaar, honen senarra, suge gorri erraldoi bezala azaltzen dena; edo lamiak, gizon gazteak erakarritz kantuen bitartez... Pelikula leiala da euskal mitologiarekiko, ez baitago asmatutako ezer, azaltzen den guztia belaunaldiz belaunaldi transmititua izan delako, ahoz zein idatziz.

Ikuspuntu desberdinetatik begiratuta ere, nabariak dira filmaren lorpenak. Metodo tradizionalerik grabatua izan bada ere, bere naturaltasuna eta xarma ematen diote luzemetrailari. Zortzi astetan grabatua, kanpoaldean argi naturala erabiliz eta barruan benetako sua, ikuspuntu erakargarri batez betetzen dute pelikula, non naturak eta, zehazki, basoak ia beste pertsonaia bat bezala jotzen duten. Egun, euskal hizkuntza eta herria jasaten hari den presioagatik bere herrialde bizilagunen eskutik, horrelako film bat grabatu dela eta pantaila handira iritsi dela ikus-teak benetan itxaropen-izpi bat dirudi euskal gizartearentzat.

Egileak: Aimar Garcia de Vicuña Hernandez eta Oihan Tomasena Tato.

2. IRITZIA

Alde batetik, pelikulak euskal mitologiaren eta kristautasunaren arteko harremanaren konplexutasuna azaltzen du. Kristauek sorginkeria edo basatitzat dituzte mitologiako izakiak, eta hauei uko egiten diete. Bestalde, badaude mitologian sinesten duten gizaki batzuk, gizartearen garapenaren ondorioz kristautasunean babesten direnak. Filmean, historian bezala, kristautasuna Europan zehar zabaltzen joango da, mitologia ezabatuz. Behin baino gehiagotan errepikatzean



“haien izena gogoratzen den bitartean existituko da”, etorkizun geldiezin hau finkatzen da. Horren isla dira Eneko eta Irati.

Irati mitologiaren azken hasperena da. Eneko, berriz, garai berriaren irudikatzailea, mitologian sinesten duena, baina gizartearengatik kristautasunean babesten dena. Honen ondorioz, bi hauen arteko harremana konplexutasun batekin dator. Biek irudikatzen dutena aurkaritzan egon arren, harreman estua sortzen dute; kristautasuna eta paganoasuna aurkaritzan dauden arren, denbora berean existitu zirela erakutsiz. Esan daiteke harreman hau amaieran azaltzen zaigun eszena bezala dela. Alde batetik, ibaiak heriotza simbolizatzen du, mitologia hil dela azalduz. Bestetik, berpizkundea ere irudikatzen du, gogoratzen dugun bitartean (Eneko gogoratu zen moduan), mitologia memorian bizirik mantentzen dela erakutsiz.

Eneko eta Iratiren konplexutasun simbolikoa baztertuz, zuzenean begiratuta, harreman sinplea edo “basikoa” dute. Beti bezalako bikote bat sartzen digute eta hasieratik ikusi dezakegu biek batera bukatuko dutela. Berritua ere estereotipoetan erortzen den bikote cis hetero-normatiboa da. Hasieran elkar ez dute gustuko, baina azkenean lagun egiten eta bizkor

eta arrazoi askorik gabe maitemintzen bukatzen dute; dena, oro har, oso aurreikusteko modukoa.

Pelikulak ez ditu egiten gai hauekin inoiz egin ez diren gauzak eta ez da zentratzen interesgarriagoak diren alderdietan. Dena oso ginetik lantzen da, horregatik, filma oso luzea bada ere ekintza batzuk azkar edo azalpen gabe gertatzea ekartzen du. Mitologiaren aldeetik zihoran istorioaren gaineko sakonketa faltan botatzen da, azken finean pelikularen berezitasun eta puntu interesgarriena hori baita, ez bikotearen erlazio estereotipatua.

Gainera gertaerak ez dira baxerik bereziak. Pelikulak “heroia- ren bidaia” izeneko narratiba aurkezten du. Bertan, protagonista mundu ordinario batean bizi da; abenturara deialdi bat du; beste errealitate bat ikusten du; errealitate horrekin arazoak ditu; eta amaieran hasierako mundura bueltatzen da, baina ikuspuntu zabalagoarekin. Honelako milaka pelikula ikusi ditugunez, hemengo honek ez ditu berezitasun gehiagorik. Azkenik, aurretik aipatutako “mitologia/kristautasun” antitesi hau, gehiago sakondu zezakeena, baliogabetzen du, eta pelikulak izan beharko lukeen xarma galtzen du.

Euskal mitologiaren emaku-

meak izan duen garrantzia erreparaturik, eta pelikulan bertan emakumeak hartzen duen papera ikusirik, lehen planoan emakumeek izan beharko lukete. Hala ere, Paul Urkijok gizon baten ikuspuntutik narratu du, zehazki gizon kristau batena eta istorio osoa harengan pilatzen du. Hau da, euskaldun kristautuen mundua gizonak dominatutakoa da, kasualitatez errealitatean eta istorioan garaile izaten dena, eta mitologiarena emakumeek osatzen dute, zapalduak eta ahaztuak direnak. Zergatik ikusi behar dugu Enekoren ikuspuntutik? Zapaltzailearenetik?

Era berean, dirudienek, Eneko inoiz azalduko ez balitz, Irati ez zen elkartuko Marirekin eta ezin izango zuen mitologiako izaki den moduan bizi. Honek erakusten duena da Eneko gabe Irati ez zela dagoen lekuan egongo, eta istorio guztia ez zela gertatuko, nahiz eta Eneko soilik pizgarri edo hirugarren pertsona izan mitologia eta kristautasunaren antitesi horretan, baita istorio berean ere. Hortaz, Eneko bada protagonista eta detonante bakarra, zergatik pelikula deitzen da Irati?

Egileak: Añes Casado Etxeberria, Nahia Nabarro Oyarzabal, Enara Azurmendi Sarasola eta Maialen Azurmendi Mujika.

Black is Beltza II Ainhoa

Black is Beltza 2018ko nobela grafiko zein animaziozko filmaren jarraipena atera da 2022an, komiki eta pelikula moduan.

Lehenengoan Manex protagonistaren nazioarteko bidaia kontatzen da, 60. hamarkadako mundu mailako gertaera garrantzitsuetan zehar, gai zentrala iraultza izanik. Bigarrena, Ainhoa, 80. hamarkadan gertatzen da, eta Ainhoa izeneko Manexen alabaren ikuspuntutik dago kontatua. Honek ere leku ezberdinetara bidaiatzen du, eta orduko Euskal Herriko eta beste lekuetako gatazkak agertzen dira: droga, barne borroka, etab.

Gehiegi kritikatzeko hasi baino lehen, esan beharra dago Black is Beltza oso onuragarria dela euskal kulturarako. Euskaldun ezkertiarren izaera festazalearekin lantzen ditu gai politikoak, gazteak eta helduegoak erakarriz. Euskal Herriko historia lantzen du mundu mailako historian kokatuz. Herri zapalduen borroka eta haserrea erakutsiz, gure borroka eta haserrea aurrera ekartzen ditu.

Lehen Black is Beltzak meritu asko dauzka, baina inolaz ere ez da perfektua. Argi dago gizoneen ikuspuntutik sortua dela bere osotasunean. Kritikagarria bada ere hau, ez du zentzu askorik guztiz ezjakintasunetik egin den zerbait zuzentzeko esfortzua egiteak. Norbaitek benetan ahalegin bat egiten duenean, orduan merezi du. Black is Beltza 2n ahalegin hori ikusten da, pertsonaia emakumeak hezur eta haragizko pertsonak bezala irudikatzen baitira. Hori lehen pausoa den arren, aldaketa nabaria da.

Black is Beltza 2k EHko historia lehenengoak baino gehiago lantzen du eta agerian da proiektuaren egileek 80. hamarkadan bizi izan zutela beren gaztaroa. Gainera protagonista jada ez da istilu politikoak turismoa egingo balu bezala ezagutzen doan kanpotarra. Atal berrian iraultzan sakonago sartu eta haren alde errealegoa aurkitzen da, alde itsusia, barne eta kanpotik bortizkeriaz osatua. ETaren aurkako eta aldekoen irudikapen inpartziala, pertsonaia moralki grisak... Ainhoa bera ez da pertsona perfektua eta bere alde iluna du.

Konplexutasun honek filma nire ustetan hobetzen badu ere, Euskal Herrikan kanpoko gai arrotzekin datoz transmisio arazoak. Bigarren Black is

Beltza nahikoa kritikatu izan da information overload-a egi-teagatik. Kritika zuzena bada ere hori filmak daukan arazo handiago baten barne da. Informazio kantitatean baino, harraren transmisioan ahultzen da. Sinpleak ez diren gaiak ez dira nahikoa argi azaltzen. Black is Beltzak benetako gertaeretan daukan dependentziarekin, hauetan jantzia ez dagoenak erraz galtzen du haria. Ainhoa filman nagusitzen da akats hau, bi pelikulak erabiltzen duten eduki historikoan asko ezberdintzen direlako.

Bi filmetako protagonistek bidaia handia egiten dute, komunitate ezberdinetan zapalkuntzen aurkako borroka ezagutzen. Honetan antzekoak badirudite ere, lehen filmean kokaleku gehiagotik igaro eta iraultza bakoitzean gutxiago zentratzen dira. Kokaleku ia guztietan istorio berdintsua kontatzen da; zapaltzaileak vs. zapalduak sinplifikatu bat. Alde bakoitzean nor dagoen esan eta listo. Bigarren filmean, ordea, ez dira hainbeste lekutatik pasatzen, hortaz Afganistango gerra bezalako gatazketan sakonago sartzen dira. Horrek zentzua dauka gatazka hauek ezin direlako betiko era sinplifikatuz azaldu. Hala ere arriskua dakar, arreta gehiago eskaini behar zaiolako egoera konplexuago hauek azaltzeari.

Honetaz gain, bi filmek ahulezia berbera dute gauzak azaltzeko momentuan. Saihestezina da istorio baterako herrialde edo garai baten egoera politiko-soziala bezalako zerbait transmititu behar duzunean galdera hau egitea: "nola kontatu hori modu naturalean?". Iruditzen zait gidoi hau idaztean behin baino gehiagotan atera zela galdera, lehenengo filmetik bigarreneira salto handia ikusi dut eta. Black is Beltza 1en hainbat momentu topa zitezkeen non pertsonaia batek denbora luzea ematen zuen beste jendearen aurrean bere inguruko egoera politikoak goitik behera azaltzen, monologo guztiz antinatural batean. Lehen esan bezala, garrantzitsua da ikusleak ulertzea zer ari den gertatzen, eta idazle moduan normala da hau kontatu nahi izatea. Baina zuzenean pertsonaia bati igorleak hartzaileari eman nahi dion azalpena

esanaraztea gidoia pobretzen duen trikimailu nagia da, sinesgarritasuna kentzen dio eta igorlea istoriotik aterarazten du.

Esango nuke gidoilariak ere akats honetaz konturatu eta film berrirako kontuan hartu zutela. Bi alditan bakarrik ikusten da aipatutako formatua film honetan; bietan, oker ez banago, nahita. Lehenengoan Ainhoak ematen du taberna batean hitzaldi sutsu mozkor bat Kubari buruz, eta lagunek barre egiten diote momentuaren xelebretasunari; nik hau gidoilarien auto-parodia gisa interpretatzen dut. Eta bigarrenegokiko lortzen dute sartzeko monologo momentu bat istorioarekiko zentzua daukan moduan: Ainhoari neska batek bat-batean etenik gabeko diskurtso bat botatzen dionean beren egoerari buruz, bestea kazetaria dela pentsatuz. Aurrerapauso handia da honekin lortzen dutena, modu horretan esan nahi dutena esan baitezakete araurik hautsi gabe. Testuinguruari dagokionez, informazio guztia naturaltasunez emateko hainbat modu daude. Horietako bat, aholkatua izan den bezala, informazioa gutxitzea litzateke.

Norbaitek galde dezake ea zergatik den hain garrantzitsua testuingurua azaltzea. Erantzun bat jada eman dut,

istorioan sartzeko beharrezkoa delako; badago beste erantzun bat, ordea. Black is Beltza izatez politikoa da. Daukan mezua (lehen zatian batez ere) sinplista bada ere, mezu indartsua da. Jada filma horretan mezua ondo emateko garrantzitsua bada egoerak deskribatzea; hurrengoan are gehiago. Lehen esan bezala, Ainhoa moralki eta politikoki konplexuagoa da, horrek zentzu batean hobe egingen badu ere, konpromiso handiagoa suposatzen du. Garrantzia gehiago du erakusten diren egoera politiko-sozial-ekonomikoak ondo ezagutarazteak.

Zer ari naiz esaten, filmean momentu gehiagotan gelditu beharko zela trama, inguruan gertatzen ari dena esplikatzeko? Bai eta ez. Ez da beharrezkoa ematen diren pausa baino gehiago ematea, hauek pixka bat aldatzearekin nahikoa delako. Adibidez, itsusia da sortzaileek beraien iritziak zuzenean pertsonaien ahotan jartzen dituztenean. Larria dena ez da pertsonaia jakinekin zentzua duenean egitea. Trama alde batera utzita, hitzaldi jakin bat transmititzeko pertsonaia txotxongilo bihurtzeaz baizik. Filma honekin behintzat ados egon banaiz, hobeto legoke bere ideiak ekinez eta ez esanez adieraziko balira (show

not tell). Eta ikusi ditudan horrelako momentuak erabiliko nitzuke, besterik gabe, egoerak deskribatzeko, ikusleak bere iritzi propioa eratu dezan.

Tontakeria bat bada ere, hasieran gauzak azaltzen dituen testu bat jartzea ere konponbidea izan liteke. Hala ere, hor erori daiteke tranpan eta garrantzia gehiegi eman mezu politikoari. Film hau gehiago da (eta izan beharko luke) akzio filma dokumentala baino.

Azken finean hauxe da Black is Beltzaren problematika. Proiektu hau hasi zenean euskaldunok munduan kokatzea zen helburua, gure arazoak beste arazoekin lotzea, gure interesak besteekin. Guztiz lotuta dago beste nazioen sufrimendura, eta hau ez onartzea istorioaren esentziaren erdia ez ikustea da. Baina badago beste erdia ere, filma (eta komikia) ganberroa da, dibertigarria eta oso autoindulgentea. Jendea modu entretenigarrian hiltzen erakusten du, musika, dantza, sexua, drogak..., eta ez da serioegi hartu behar, nik kritika honetan segur aski egin dudako moduan. Bere alde serio didaktikoa hor dago, baina etengabe dago dantzan alde ganberro entretenigarriarekin, ezin dira banandu.

Egilea: Añes Casado Etxeberria

